

UNE



UNE taldearen bigarren diskoak 'Hegalik gabe hegan' du izenburua. Rocka, metala eta melodia izugarriak batzen dira kontrastez beteriko lan honetan: orain zuria, gero beltza; orain malenkonia, gero lasaitasuna; orain abiadura, gero poliki-poliki. Aitor, Rober, Xabi eta Karmelo indartsu itzuli dira zinez

"Kantu bakoitzak bere bizitza eta bere izaera dauka"



Diskoa amaitu eta gero lasaitu on bat hartu dutela esan digu Aitor Uriartek, UNE taldeko ahotsak. Bi urte ero pasa omen dituzte *Hegalik gabe hegan* bigarren diskoa osatzen eta beste zenbait konpromiso betetzen. Bu-

ruhausteak eta estresa erruz izan dituzten arren, ahaleginak merezi izan duela aitortu digu abeslariak, eta jarritako ilusio hori guztia nabaritutuko dugula. Orain, zuzeneko-ari forma ematen ari dira. Ideia politak mahairatu

dira kontzertuetarako eta itxura ona dutela esan du. Ikusi beharko, UNEk Euskal Herrian zehar emango dituen hamaika kontzertuetan, Aitorrek esan digunez, agenda potoloa baitute hurrengo hilabeterako.

Durangoko azokaren ostean zer moduz doa diskoaren ibilbidea?

Antza denez, ondo doa diskoa. Oraindik ez dugu diskoak lortu dituen datuen berri, baina inguruko jendeak esan digunaren arabera eta guk geu sentitzen ari garenen arabera diskoak harrera positiboa izan dela pentsa dezakegu. Kritikak eta komentarioak behinik behin tonu baikorren iristen joan zaizkigu. Beste aldetik, kontzertuetan ere ikusi dugu aurreko diskoaren eta bigarren disko honen elkarketak bere fruituak eman dituela eta jendea gozaten ari dela. Kontzertuek asko irabazi dute errepertorio ugariago horrekin eta oso giro ona sortzen ari da. Kalitatezko zuzenekoak eskaintzen ari garela uste dut.

Zein da diskoaren arrakasta neurtzeko darabilzuen termometroa? Kontzertuak, kritikak, salmentak? Zerk kezkatzen zaituzte gehien bestalde?

Topikoa bada ere, lehenik eta behin norbera gustura geratzea da disko baten arrakasta neurtzeko termometroa. Guk nahi dugun musika egin dugu, bete ditugu gure helburuak, bai kantuen konposizio aldetik eta bai diskoaren soinuaren aldetik. Luxua izan da eta emaitzarekin pozarren gaude. Gero, jendearen aldetik, diskoari buruz asko hitz egiten dela ikusten dugunean seinale ona da. Gainera, gaur egun interneten jasotzen ditugun sarrierak, mezuak eta parte hartzeak oso inportanteak dira disko bat ondo hartua

izan dela jakiteko garaian, myspace edo web orrien bitartez. Horrekin guztia-rekin interpretatu dezakezu diskoaren norabidea ona edo txarra den. Baina zaila izaten da. Kontzertuak hor daude, eta jendea,

aldetik ere tristeagoak eta alaiagoak daude. Horrela gure ustez, errazagoa baita diskoa entzutea. Ez da hain aspergarria. Badira hasiera hasieratik oso ondo sartzen diren kantuak, eta badira kantu zailagoak

filosofia mantentzen ari gara era batean edo bestean. Saiatzen gara koherente izaten gure buruarekin.

'Hegalik gabe hegan' izenburuak diskoaren izaera deskribatzen al du?

Izenburua diskoaren barruan aurkituko dugunaren laburpen txiki bat izan daiteke. Azken finean disko honetan gure ametsak eta ilusioak jarri ditugu eta oztopo guztien gainetik, diskoa aurrera atera ahal izan dugu. Ez da erraza izan, baina "hegan egin ahal izan dugu hegalik gabe". Gogoeta horren inguruan osatu dugu disko osoa. Hau da, kantuek ametsak, itxaropena eta baikortasuna transmititzen dituzte.

Bi urte pasatu dira lehen disko hartatik. Tartean Latzen taldearen agur-bira egin duzu. Nola antolatu zarete?

Egia esateko ez da erraza izan. Lan asko pilatu zaigu eta egunak 24 ordu ditueenez ez du denerako ematen. Justu-justu ibili gara gauza guztiekin. Latzen taldearen agur-birak denbora asko kendu dit, erantzukizun handia eskatzen zuelako eta entsegu asko egin behar izan ditudalako. Eta beste alde batetik, Bilbo aldean izan naiz disko berriaren kantuen konposaketan laguntzen. Bi gauzak gainera oso desberdinak dira bere prozesuan eta txipaz aldatzea zaila izan da. Azkenean, baina, iritsi gara eta poza are handiagoa izan da bukatu dugunean. Arnasa hartu dugu eta oso harro gaude egingakoaz. Latzen biran ha-

Jendea, zailtasunak zailtasun, gure kontzertuetara joatea arrakasta nahikoa da guretzat"

zailtasunak zailtasun, horrietara joatea arrakasta nahikoa da guretzat.

Bigarren diskoa da oraingoa. Zer berri dakarzuze disko honetan?

Bigarren diskoak beti lehenengoak baino erronka zailagoa suposatzen du talde batentzat. Bigarren diskoa, izan ere, kontsagrazioaren diskoa dela esaten da. Jendeak beste begi kritiko batekin begiratzen du diskoa eta erabakitzen du talde batek duen estiloa gustuko duen ala ez. Nik uste dut lehengo diskoa linealagoa izan zela soinu eta musika aldetik. Bigarren disko honetan lortu dugu, bilatzera joan barik, kontraste handiko disko bat, kantuak unean-unean egiten joan garelako eta bakoitzak bere izaera lortu duelako. Beraz, diskoan, orokorki ikusita, kantu aldetik barietate handia dagoela baieztatu daiteke. Kantu suabeak, gogorra-goak, azkarragoak... letra

ere. Disko erakargarria osatu dugula uste dut, bai entzuteko garaian eta baita zuzenekoak egiteko garaian ere.

Sinboloekin jolastea gustatzen zaizue. Lehen diskoan untxi bat, orain ilargia, hegoak... zer dela eta?

Kontraste-disko bat izan bada kantu aldetik, estetika aldetik sinbologiarekin jolastu dugu, lehen diskoarekin egin genuen bezalaxe. Hau da, *Une Nare Eza* diskoaren azala zuria zen eta hau berriz beltza da oso-osorik. Aldiz, lehen diskoko kantuak ilunagoak ziren eta oraingoak puntu optimistagoa dute. Argi-ilunen jolasa gustuko dugu eta kaleratu ditugun bi diskoetan erabili dugu formula hori. Jarraipen garbi bat badago, beraz, gure taldearen estiloan. Nahiz eta aldatetako egon musika aldetik, UNE hasierako talde berdina da eta bere identitate-zeinuak mantendu ditu. Diskoen eta taldearen

sierako helburuak hobetu ditugu, bai jendez eta bai medioz eta esperientzia izugarria izan da. Eta disko honekin ez da gutxiago izan. Gogorra izan bada ere, oso polita izan da eta batez ere amaitu dugunean eta emaitza ikusi dugunean guztiak merezi izan duela ikusi dugu.

Noiz hasi zarete buru belarri lanean disko honetan?

Azken urtea dedikatu dugu diskoa egiteari, kantuen sormena poliki-poliki egin badugu ere denbora libre pixkatxo bat izan dugunean. Epe horretan erritmo lasaiago batean joan da diskoaren sorkuntza, hala-beharrez, hein batean. Azken urtean, ostera, denbora gehiago dedikatu diogu diskoari, estudioan sartu eta kantuak biribiltzea egokitu zaigulako. Bukaera aldera lan gehiago izan dugu.

Nahasketak eta diskoari azken ukituak emateko Bartzelonara jo duzue profesional onenekin lan egiteko. Zertan nabarrituko dugu hori?

Lehenik eta behin aipatu nahi nuke, Saltos Records Ondarroako estudioetara itzuli garela, aurreko diskoa eta maketa grabatu genituen estudio berberera. Guretzat luxu bat da han lan egitea malgutasun handia onartzen digutelako ordutegi eta egutegiaren aldetik, eta ustekabeko zerbait suertatzen bada ere, ez digute eragozpenik jartzen. Beraz, doala beraientzat gure esker ona. Oso gustura izan gara beraiekin. Baina kasu honetan beste

buelta bat eman nahi genion diskoari eta lagunen kontaktuen bitartez soinu teknikari handienekin lan egin ahal izan dugu Bartzelonan. Han, itzelezko estudioekin egin dugu topo, baliabide izugarriekin... ezin gara kexatu zein lekutan ibili den gure diskoa eta zer pertsonekin. Soinu aldetik ere igartzen da desberdintasuna, baina subjektiboa dela uste dut. Gure ustez, beste zabaltsun bat dauka eta soinu profesionalago bat dauka. Laguntzen du horrek guztiak diskoa osorik entzuterakoan.

Zuen soinua zein etiketapean jarri dezakegu?

Ez dugu estilo markaturik. Pop ukituak badaude, metal riffak badira, baina bai uste dut rock kutsu gehiago daukala disko honek. Horrek eragin du, diskoa, aberatsagoa izateaz aparte, mugituagoa izatea. Nahiz eta estilo berdintsuan jarraitu, badauka aipatu dizudan extra hori.

tra bat eskatzen dizu eta musikari esker sortzen zaizkizu letrak buruan. Hortik abiatuz, beti errazagoa da letrak egitea. Hutsetik hasiz gero, gauzak asko konplikatzen dira nire kasuan. Bestalde, melodia-bakoitza desberdina den moduan, letrak ere oso desberdinak dira kantu batetik bestera. Gai txikietatik hasita, gai potoloak lantzen ditugu kantuetan. Baina beti helburu berdinarekin, hau da, norberak nahi bezala sentitzea eta interpretatzea kantuetako edozein gai. Horregatik, saiatzen naiz kantu zabalak egiten, esanahi askotarikoak eta betiere kantuak irekita uzten ditut. Hori lortuz gero bizirik egongo da kantua, jendeak beti desberdin sentituko duela eta testuinguruaren arabera kantua desberdin entzungo delako.

Bideoklipak egin dizkiozue kantuei. Zergatik ematen diozue garrantzi hori irudiari?

Kantuak irekita uzten ditut beti. Horrela eginez gero, kantua bizirik egongo delako, jendeak beti desberdin sentituko baitu"

Zu zara diskoaren hitz egile nagusia. Zer da kontatu nahi diguzuna?

Kantu bat idazten dudanean, lehenik eta behin musikak transmititzen didanari fidela izaten saiatzen naiz. Musikak inkontzienteki le-

Loti ederra azken disko honetako aurkezpen kantuen kasuan. Jendeari asko gustatuko zaio, ziur. Bideoklipak kantua ixteko balio dute. Izan ere, kantu bat entzuterakoan bakoi-tzak bere buruan bere irudiak eta grafikoak egiten ditu. Hori ere oso polita da baina bideoklipen bitartez, dena eskura ematen zaio ikus-entzuleari nolabait. Baina egia da gu nahiko saltseroak garela eta musikarekin zerikusia duen guztia ukitzea gustatzen zaigula. Ipurtarinak gara berez eta gauza berriak probatzea gustuko dugu.

Loti ederra da disko osoaren aurkezpen kantua. Zergatik aukeratu duzue hori hain zuzen ere?

Ez dago formula zehatzik kantu bat bestearen gainetik azpimarratzeko garaian eta horrexegatik, taldeok askotan ez dugu asmatzen publikoari gustatuko zaion kantu horrekin. Batzuetan, nahi gabe, disko beste kantu batzuk nabarmen-tzen dira. Beraz, gu saiatzen gara gure intuizioarekin-edo kanturik erakargarriena proposatzen. Oro har, argi ikusten ditugu bizpahiru kantu, lehenengo entzunaldian hobe sartzen direnak direlako. Beharbada beste kantu batzuk politagoak iruditzen zaizkigu baina mundu guztira hel daitezkeen kantuak nabarmen-tzea komeni da nolana ere. Hala ere, irratietan *Loti ederra* zabaldu beharrean, disko kantu lasaiena, *Begiak itxita* kantua aireratu dute, komertzialagoa delakoan eta az-



karrago irentsia izango delakoan.

Estetikari ematen diozuen garrantzia kontutan izanda, nolakoak dira zuen kontzertuak?

Asko zaintzen ditugu kontzertuak. Gainera badugu argiztapenen kontuan maitatu den teknikari eta laguna,

SA edota Hamlet bezalako talde handiekin lan egin duena, eta ondorioz, gure kontzertuak ikusleentzat izugarriak izango direla zalantzarik ez daukat. Orain dela gutxi egon naiz berarekin, ideia asko ditu buruan eta irrikaz nago taula gainean praktikan jartzeko. Mimo handia jarriko dugu.

Non joko duzue epe laburrera?

Konzertu batzuk eman ditugu: Larrabetzun, Bilbon, Tolosako Bonberran, Ondarroako Kafe Antzokian... martxa hartuta daukagu, beraz. Otsailaren 13an, Donostiako DOKAn izango gara, Barakaldon 28an... dis-

koa promozionatzeko leku ezin hobekak gure ustez. Irtengo zaizkigu kontzertu gehiago ere. Oñati edota Iparraldean ere jotzeko negoziatzen ari gara. Poliki-poliki gauzak lotzen goaz eta guk ere ondo zaintzen dugu non joko dugun. Saiatuko gara leku desberdinetan egoten. ■